

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

BASQUE TEAM FUNDAZIOA

1. Bekak eta Proiektuak Basque Team 2023..... 2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Bekak eta Proiektuak Basque Team 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko otsailaren 14koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez baimena ematen da eta oinarriak onartzen dira Fundación Basque Team Fundazioak beka eman ditzan 2023an Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirola sustatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-erakundeei laguntzak eman diezazkien 2023ko goi-mailako proiektuetarako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/02/2300921e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza edo beka eman ditu duela zenbait urtetik hona, euskal kirolariak behar bezala prestatzeko eta parte hartzeko mundu mailako nazioarteko kirol-lehiaketa garrantzitsuetan, eta, bereziki, programa olinpiko eta paralinpikoaren parte diren lehiaketetan. Kirolariei zuzenean emandako laguntzez gain, beharrezkotzat jo da kirol-erakundeei zuzendutako beste laguntza batzuk ezartzea. Kontuan izan behar da kirol-modalitate eta -espezialitate batzuen kasuan kirol-erakundeak direla kirolarien prestakuntza bideratzen dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

130 beka-eskaera egin ziren, eta eskatzaileetako 94k jaso dute beka. Era berean, proiektu bat aurkeztu zuten 12 federazioetatik, 5ek dirulaguntza jaso zuten.

Aurrekontuan aurreikusitakoa: 1.213.500 €. Aurrekontua gauzatzea: 954.455 €.

Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina: helburuak betetzen ditu, eta, beraz, gure ustez, oso erabilgarria eta eragin handia du gizartean.

Desberdintasunak ezabatzeko, emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta berdintasuna sustatzeko ekintzak garatzen dituzten federazioen alde egin da.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Bekak ematea	104	94
Teknikazio Proiektuei laguntzak ematea	8	5